

## egunekoa

Jose Azurmendi

(Idazlea)

# Arizmendiarrrieta eta gu

Hil honen 29an egingo du Don Jose Maria Arizmendiarrrieta heriotzaren hogeita bost urtegarrena. Apaiza zen. Markinan jaioa, Barinagako auzoan, Iturbe baserrian (1915). Hiru Baskongadak oraindik diozesi bakarera ziren orduan (Bilbon eta Donostian Francok ipini ditu, gerra ondoan, Gotzainak, hiruror batasuna apurtzeko) eta Gasteizko Seminarioan egin zituen ikasketak. Manuel Lekuona eta Barandiaran izan ditu, besteak beste, irakasle. Seminarioan euskaltzalea zen. Gerra Zibila hasi zenean (1936) Eusko Cudarosteko milizietan zerbitu zuen, kazetari gisa, *Cudari-n* eta *Eguna-n*. Bilbo erortzean «nazionalak» preso sartu zuten (1937). Nahikoa justu salbatu du lepoa. Kartzelako bere lagunak fusilatutako ziren artean, bera Burgosko Kaserna Jeneraleran eraman zuten soldadu, han Armada frankistarentzat bulegari lanetan arituz. Kasernako denbora librea apaizgaiaren ikasketak jarraitzeko aprobetxatzen zuen. Gerra amaiztean (1939) Gasteizera itzuli, teologia burutu eta apaiztu egin zen. Meza Berria Markinan eman eta zuzenean Arrasatera destinatu zuten, hau izan da bere apaiztako aurreneko eta azkeneko destinoa: 1941eko urtarrilaren bostean, orduan zortzi mila arima inguruko Arrasaten jaitsi zen trenetik, kartziozko maleta xahar batekin, han geldituko da hil arte (1976).

Arizmendiarrrieta Arrasateko mugimendu kooperatiboaren sortzailea izateagatik da ezaguna -edo, entzuna, hobeto esateko. Zeren eta oso ezaguna apenas baita gure artean. Izan ere, bere lana apala izan da. Iraunkorra, sakona, dirdiri gutxiokoa, pedagogikoa. Bere lanik gehiena gazteen hezkuntzan egin du. Deus ez apatekorik.

Apai gazte batek herri koskon bateko gazteekin egin zezakeena. Hezkuntza lan txorren emaitza da, gero etorri eta orain denak txunditzen dituen Arrasateko mugimendu kooperatibo erraldoi guztiak.

Zerk egin du eta egiten du oraindik Arizmendiarrrieta interesgarri? Bere ideiek. Alegia, nahikoa da bera ezagutu zutenak ezagutzea, pertsona bezala ere indar sekretu izugarri bat eduki izan behar duela, oharrezko. Denek ez bide zuten maitatu. Jauntxo Jaunentzat «apaiz gorri» txoro bat eiz zen; Jauntxo Andreetzat «ese cura que ni sabe hablar bien castellan». Baina maitatu zutenek nola maitatu eta eskertzen duten oraindik ere, ondo ikusten da Arrasate aldean. Bera ezagutu ez dugun guztiontzat, aldiz, bere pentsamendua eta obra gelditzen zaigu.

Arizmendiarrrieta liburua bat bakarra ez du idatzi, baina ehunka hitzaldi eta artikulu egin du. Aleka aleka erein du bere pentsamendua urteetan barrena. Lan hori bilduta dago, argitaratzeko badago ere. Orain badugu, ordea, liburua oso egoki bat haren pentsamendua ezagutzeko: *Lankidetzaren Arizmendiarrrieta pentsamendua* duzu izenburua, elkarlanean egin eta Mondragon Unibertsitateko «Lanki» ikertegiak argitaratua (2000). Egileen artean, EGUNKARIAREN irakurleentzat aski ezagunak Jon Sarasua eta Joseba Azkarraga daude batik batik; Nerea Agirre, Eunete Elio, Oihana Garcia eta Ainara Udaondo lankide gazteak ere esku hartu dute bertan. Ikuspegi didaktiko eta dibulgatzaile batez, liburukak, Arizmendiarrrieta pentsamendua XXI. mendearen ez eskaintzen dion, ederki azaltzen du, modu argi eta grafikoa.

Langileriak, bere buruaren jabe bihurtzeko, bere pentsamendu propioa behar du. Ezaguna da, garai bakoitzeko pentsamendu dominatzailea, dominatzaileen pentsamendua izan ohi dela. Hori zapartatu gabe ez dute dominatuek askatasuna lortuko. Arizmendiarrrieta hori bilatzen du. Ez da iraultzailea, iraultzarekin ez-tanda bat ulertzen bada. Baina helmugan iraultza bat espero du, astiro astiro eta egunoro eragindako aldaketatik. Iraultzaren bortxakaria eta ondoriozko diktatura ekidin asmoz, kapitalismoa urratsez urrats gidatuzko «eraldaketa proiektua» da harena.

Arizmendiarrrieta ez du historia unibertsalaren teoria handi konplexurik. Harena lanaren, pertsonaren, askatasunaren filosofia xume bat da. Berak ez ditu langileak emantzipatu nahi: langileak, edo beraiek emantzipatzen dira, edo ez dira sekula emantzipatuko. Ezin ditu beraien lekuan besteren batek emantzipatu. Beraz, Arizmendiarrrieta inoiz ez du bere pentsamendua dogmatizatuko. Arrasateko «esperientziak» mintzatu da, absolutismo izpirik gabe. Beste esperientzia modu asko da posible askatasunaren bila. Eta denek elkar osatu behar dute.

Haren filosofia egunoroko ekintzaren ganean egunoro garatuz doan gogoeta da. Egunoro jarraitu beharrekoa. Behin eta berri gogoratzen zuten, Arrasateko kooperatibismoak Euskal Herriko auzo-lan oihurretatik eta gerra aurreko sindikalismoatik asko ikasi zuela. Eta esperantza inoiz ez zuten galdu, sindikatuek berrituz tradizio hura berrartu eta, kooperatibekin batera, gogoeta berri bat abiatuko zutela, guztien artean langileria osoaren emantzipazioa fronte zabal batean aitzinarazteko.

Honek guztiak erakusten digu askatasunaren defentsarako tresna eraginkorra segurtasuna dela. Mendebaldeko demokraziak ezin dutela, gaizki ulertutako giza eskubideen izenean, segurtasuna ahanzi.

Gure sistema sozial, politikoa eta ekonomikoa akatsak ukan baditu, baina gai izan gara bere desabantailak gainditzeko. Oinarriko balioen gainbizienerako beharrezkoak diren erreformei ezin baitaie uko egin. Izan ere, ezin baitaio argudiorik utzi, iraultzaren erromantizismoaz jantzita, jarrera eraldatzaile arrakutsuekin jolasen dutenei.

Legeak aldatu daitezke gizartearen bilakaerarekin batera molda daitezken. Baina Zuzenbide Estatuaren inperioak soilik eskaini diezaguke demokrazia ordezkatzaileak babesten dituzten printzipioen justizia mugagabea.

Gurea, hau bai dela marfilezko dorrea!

## zutabea

Kepa Korta



## Independentszia

Zaila da jakiten Euskal Herrian zenbat garen independentszia politikoa, hots, euskal estatu independentsia nahi dugunak, eta zaila izango da independentszia gauzatu daitekeen aukera erreala gisa aurkezteko den arte. Nolanahi ere, independentsiazaleak baino gutxiago dira, nik uste, pertsona independentsiek. Pertsona independentsien kontuak, izan ere, ez dauka independentsia zaletasun politikoa erkin zerikusirik handirik, urritasun erlatiboaz aparte.

Pertsona independentsia iritzian da, hasterko, independentsia. Informazio eta komunikabideetatik iristen zaion mezu galbahetik pasatzen du. Iritzi propioa osatzen du, iritzigile ofizialena behar adina soilik kontuan hartuz. Gehiengoaren, gobernuaren, alderdiaren, erakundearen, lagunen eta etsaien iritzien gainetik (edo azpitik; alde edo kontra) berri dauka berea. Sen kritikoa izatea esaten diote batzuek independentsia gaitasun honi.

Mundu mailako masifikazioa eta uniformizazioa garaiotan ez da harritzekoa iritzi askeko pertsonak nekez topatzea. Urriagoak dira, nolananahi ere, iritzi kritikoa izanda, publikoan adierazteko urratsa egiten dutenak. Are urriago, esango nuke nik, euskal hizkuntza eta kulturaren munduan. Francoren garaiak klandestinitateetik espainiar konstituzioari erakunde publikoan diru laguntzekiko murrizketa pasatu da zuzenean mundu hau hegoaldean. Eta, jakina, ekonomikoiki morroi denak ezin ahoetik altxa, badaezpada ere. Zergatik iritzi kritikoa eman, ez erabazi ez eta asko gaitzeko arriskua badauka? Gobernuari kritika egiten dionak negozioa oposizioarekin duela izango da, editoriali honi kritika egiten dionak beste horretan izango du interesa... uste du maitatzu askok. Ekintzari onena eta arrazoizkoena irabazi handienak ematen dituen dela dioten etika eta filosofia arbuiztzen ez ditugun bitartean, hori ere ez da harritzekoa izango. Horregatik da hain pozgarria iritzi independentsia kritikoa irakurtzea. Horregatik da hain sanoa fikzioetik kanpo ere *agirretarrak* badirela egiaztasuna.

## seiko urrea

Gaizka Aranguren



## Ordenua, zoin den ejerra!

Udazkenaren aginduak beteaz, lotsaren gorriaz lagunduta, biluzten hasi dira zuhaitzak. Ederra da, biziki ederra, gauzak behar bezala izatea uneoro eta edonon.

Afganistanen egoera behar den lekura bideratzen ari dira. Logika, demokrazia, ordenua, askatasuna eta justizia gailendu dira berritri. Munduaren ikuspegi garbia dutenek lortu dute, berritri ere, fanatismo itsuak ez apurtzea gorde beharrekoei. Eskerrak Jaungoikoak dagokienei eman diela ordenua berrezartzeko behar bezain bertze indar.

Gaur egun existitzen den gizarte sistema aitzinatuena erakutsi ahal izan du bide zuzena zein behar duen izan.

Zibilizazio judu-kristauaren gailentzen intelektualek egoera kontrolagaitzari mugak jarri dizkio.

Azken bi hilabete hauetan hainbat tekste izan du gure bizi baldintzen oinarri diren baloreak kolokan egon zitezkeela. Askatasun iraunkorraren izenean, mendebaldeak argi utzi ahal izan du bere ereduak erro sakonki dituela eta bere burua babesteko indarra baduela.

Oraingoan, gainera, mendebaldeko herriek ez dute inolako zalantzarik izan elkarrekin agertzeko munduaren aitzinean. Beti dago eta beti egongoen da edozein ekimen zuten eta demokratikori ezekoa ematen dionik. Zorionez, ezekoaren subkultura txiki bat egote-

## kornerra

Mikel Elorza

## Siroketa

Siroketa: bat-bateko atxilotze-agindua, multzo bati zuzendua, zeintzuk eta zenbat zehaztu gabe, arrazoiak ere agerikoa ez dela. Ez hitza ez definizioa daude gure hiztegiaren baita, batek daki, EEB-Betako mendebalde mitikoa Lynch epaileak ingelesari ez ezik beste hizkuntzei ere *linterxamendu* hitza eman badie, Espainiako Entzutegi Nazionaleko Siro Garcia magistratuak ere eman lezake. Atzo hiru lagun atxilotu zituzten, «los de la primera fila», epaitzen ziharduten etakide bat areotik ateratzen ari zirela txalo eta oiheru egiteagatik. Uste dut oiheruagatik mehatxu-delitua eta ekintza terroristen sustatzea egotzi dietela txaloengatik. Epaiketako ikusleei. Deigarria da zehaztasuna: epaileak txalogueak atxilotzeko esan eta poliziaiek eurek galdetu zuten, «quiénes?». Badakigu: eskolan eta antzerkian bezala, badaezpada epaiketetan ere atzeko ilaretan eseri.